

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

2024ko abuztuaren 1eko osoko bilkuraren erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, Erriberabeitiko kontzejuei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten dira, 2024ko ekitaldiari dagozkion gastu hauek finantzatzeko: eraikinen, zerbitzuen eta azpiegituren inbertsio, konponketa eta mantentze gastuak, gastu arruntak eta tokiko jaien gastuak

BDNS(Identif.): 782338.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/782338>).

ERRIBERABEITIKO KONTZEJUEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK, 2024KO EKITALDIARI DAGOZKION GASTU HAUEK FINANTZATZEKO: ERAIKINEN, ZERBITZUEN ETA AZPIEGITUREN INBERTSIO, KONPONKETA ETA MANTENTZE GASTUAK, GASTU ARRUNTAK ETA TOKIKO JAIEN GASTUAK

1. DEIALDIAREN XEDEA.

Oinarri hauen xedea da Erriberabeitiko Udalak honako hauek garatzeko helburuaz udalerriko kontzejuei 2024rako ematen dizkien dirulaguntzen prozedura arautzea: azpiegiturak hornitzen, ezartzen, hobetzen, berritzen, handitzen laguntzen duten jarduerak, higiezinak mantentzeko obrak, zerbitzu publikoari atxikita dauden energia, erregai eta internet horniduraren kostuak, herritar guztien bizi maila hobetzen laguntzen duten beste jarduera batzuk, udalak bere jarduera eremuetan aurreikusitako helburuak lortzen laguntzen dutenak, eta jaietako zenbait jarduera.

2. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN ZERBITZU ETA KONTZEPTUAK.

Diruz lagunduko dira kontzejuek 2024ko ekitaldian esparru hauetan egindako obren, mantentze lanen eta zerbitzuen eta jai jardueren horniduren ondoriozko gastuak:

2.1. Kontzejua titularra duten ondasun, ekipamendu eta azpiegitura publikoetan egindako mantentze eta konpontze obrak eta inbertsioak (aldez aurretik egiaztatu beharko dira):

Eraikinak birgaitzeko, eraberritzeko eta konpontzeko obrak (aldez aurretik haien titulartasuna egiaztatu beharko da).

Hilerriak birgaitzeko, eraberritzeko eta konpontzeko obrak (aldez aurretik haien titulartasuna egiaztatu beharko da).

Eraikinetarako altzariak erostea.

Instalazioak indarrean dagoen araudira egokitzea.

Ordainsari teknikoak (proiektua, obra-zuzendaritza, segurtasuna eta osasuna), legez beharrezkoak diren kasuetan.

Bide publikoen edo eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obrak, bai kanpoaldetik sartzeko, bai barrualdetik sartzeko.

Ekintza berriak, eraberritzeak edo kononketak parke eta lorategietan (lorategietako eraberritzeak, ureztatze instalazio berriak, eraberritzeak edo kononketak, eta zuhaitzak landatzea). Ez da emango dirulaguntzarik lore eta landare galkorrak erosteko.

Hiri altzariak eta haurrentzako jolasak erostea edo konpontzea.

Herri barruko bide publikoak zolatu eta konpontzeko obrak.

Kontzejuaren titulartasuneko bideak garbitzea eta sastrakak kentzea.

Argiteria publikoa, elektrizitatea, internet edo telefonia lehen aldiz instalatzeko, eraberritzeko edo konpontzeko obrak.

Kontzejuaren jabetzako bide publikoetan, eraikinetan, bideetan edo interesguneetan seinaleak jartzeko obrak (berriak jartzeko edo daudenak konpontzeko).

2.2. Honako zerbitzu publiko hauen gastu arrunta:

Administrazio kudeaketako gastuak, legez eska daitezkeen dokumentuekin behar bezala egiaztatuta, kontzejuak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoen kudeaketari lotuta.

Argiteria publikorako elektrizitate hornikuntza.

Energia elektriko hornitzea kontzejuaren etxea, zentro soziala eta/edo kontzejuaren jabetzako kultura etxeak.

Erregaiz hornitzea kontzejuaren etxea, zentro soziala eta/edo kontzejuaren jabetzako kultura etxeak.

Kontzejuaren etxea internetez hornitzea.

Kontzejuaren etxea, zentro soziala eta/edo kontzejuaren jabetzako kultura etxeak garbitzea.

Eraikin publikoetako instalazio termikoen ikuskapena, berrikuspina eta mantentze teknikoak.

Suteetatik babesteko instalazioak berrikustea eta mantentzea.

Eraikin publikoetako igogailu eta jasogailuen ikuskatzea, berrikuspina eta mantentze teknikoak.

Eraikin publikoetako instalazio elektriko nahitaezko ikuskatzeak.

Hilerrria garbitu eta mantentzeko lanak, baldin eta agiri bidez egiaztatzen bada hilerrria kontzejuarena dela.

Haurrentzako jolas eremuak ikuskatzea.

2.3. Jai jarduerak.

Oro har, diruz laguntzekoak izango dira herri bakoitzeko jaietan egindako zaindariaren jai jarduerak, hala nola:

Kontzertuak edo dantzaldiak.

Kultura ikuskizunak.

Kirol ikuskizunak edo jarduerak.

Haurrentzako jarduerak.

Ematen diren trofeo eta sariak.

Herriko jaietan bide publikoak garbitzea.

Ez dira diruz lagunduko jarraian adierazten diren jarduerak, mantentze gastuak, obrak eta inbertsioak:

Festa jardueren alorrean, ez dira diruz lagunduko:

Jatetxe eta otamen gastuak eta zentro sozial eta leku publikoetako festa ekitaldien ondorioz izandako janari gastuak eta antzekoak.

Baita ere, kanpoan geratzen dira petardoak eta su artifizialak erosteko gastuak.

Elastikoak, txapelak, zapiak eta gainerako merchandising gaiak, serigrafiatuak edo ez, erostea, festa horiek direla-eta.

Era berean, ez dira diruz lagunduko animaliekin egindako ikuskizunak, non eta ez diren animalia biziak daramatzaten nekazaritzako eta abeltzaintzako azokak, baina erakusketa xede bakarra eta eskusiboa dutenak.

Obren alorrean.

Deialdi honen xede diren obren gastuak, berariazko hitzarmen batean sarturik dirulaguntza jaso badute.

BEZari dagozkion gastuak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal direnen barnean badaude. Kontzejuak ez badauka BEZeko aitortpena egiteko obligaziorik, haren jarduera ez dagoelako zergaren pean, diruz laguntzeko gastuen artean hartuko da BEZA.

Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak sektore publikoko kontratuei buruzko legeriak kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak kontratazio espedientearen kopia erantsi beharko dio fakturari, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen araudira egokituta.

Egindako jarduerari dagokien kontzeptu zehatz eta identifikaturik ez duten fakturak ez dira diruz lagunduko.

3. ERAKUNDE ONURADUNAK.

3.1. Erriberabeitiko udalerriko kontzeju edo toki entitate txiki guztiak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradunak.

3.2. Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartzeko, erakunde eskatzaileek egunean izan beharko dituzte beren zerga eginbeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Erriberabeitiko Udalarekikoak. Baldintza hori eskabidea aurkezten den unean bete beharko da, eta betetzen jarraitu beharko du dirulaguntza emateko prozesu osoan (dirulaguntza ematea, betebeharra aitortzea eta ordaintzea).

Zerga eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea egiaztatzeko, dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

Dirulaguntza eskaeraren I. eranskinean (a eta b), aukera jasotzen da erakunde edo organismoetatik zerga eginbeharren eta Gizarte Segurantzarekikoen inguruko datuak eskuratzeko baimena emateko Udalari.

3.3. Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan beren antolaketan eta jardueren programazioan emakumeen edo gizonen presentzia edota gizon eta emakumeek berdintasunez parte hartzea eragozten duten erakundeak.

4. AURREKONTU KREDITUA.

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak Erriberabeitiko Udalaren 2024. urterako aurrekontuko honako aurrekontu aplikazio hauen kargura finantzatu dira, eta horretarako, aurrekontua aldatzeko dagokion espedientea izapidetu da (8/2024 kreditu gehigarria), korporazioaren osoko bilkurak 2024ko maiatzaren 13ko bilkuran hasierako onespena emanda:

338.434010. Tokiko jaietako kontzejuetarako dirulaguntzak: 40.000,00 euro.

943.434010. Kontzejuentzako dirulaguntzak zerbitzu publikoak mantentzeko: 25.000,00 euro.

943.734010. Kontzejuentzako dirulaguntza ondasun eta zerbitzuetan inbertsioak egiteko: 80.000,00 euro.

Tokiko jaietarako dirulaguntza kalkulatzeko, taula hau erabiliko da:

ZENBATEKO FINKOA.

GASTU HAZTATUA.

1.000,00 euro.

4.000,00 euro.

1.000,00 euro.

QUINTANILLA ERRIBERABEITIA

1.000,00 euro.

14.000,00 euro.

1.000,00 euro.

22.000,00 euro.

18.000,00 euro.

5. IZAPIDETZEA.

5.1. Aurkezteko epea.

Hamabost egun balioudun izango dira eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.2. Dokumentazioa.

Deialdiaren inguruko dokumentazio guztia eskuragarri egongo da udalaren bulegoetan, jendearentzako arreta ordutegian.

5.3. Eskaerak eta izapidetzea.

5.3.1. Eskaerak 5.1 oinarrian ezarritako epean aurkeztu beharko dira udalaren bulegoetan nahiz lege ezarritako beste edozein modutan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, dokumentu hauek erantsita:

Dirulaguntza eskaeraren I. eranskina (a, b eta c), oinarri hauei erantsita ageri den ereduaren arabera, eta kontzejuaren lehendakariak edo jarduteko daukan ordezkariak egiaztatzen duen pertsonak izenpetua. Eredua eskuragarri dago udaletxean.

Eranskin horren barruan, gastuak frogatzen dituzten fakturen zerrenda dago, zenbatekoak, faktura data eta ordainketa data adierazten dituenak. Eranskinean aitortzen da erakundeak laguntzarik eskatu edo jaso duenez eskatutako kontzeptuetarako eta, jaso baldin badu, adierazten da zein erakundetatik, eta eskatutako edo jasotako zenbatekoa.

Eranskin hori osorik bete beharko da. Eranskinetako lerro bakoitza faktura bakar bati dagokio, aldizkako maiztasuneko kontzeptu errepikariak izan ezik, hala nola elektrizitatea, Internet edo bestelakoak, kontzeptu bakar batean laburbildu ahal izango baitira gastu mota bakoitzeko (adibidez: elektrizitatearen faktura guztien batura).

II. eranskinean sartzen ez diren kontzeptuak edo behar bezala xehatuta ez daudenak ez aurkeztuztat joko dira eta ez dira diruz lagunduko.

Gastu guztia egiaztatzen duten fakturen kopia eta, hala badagokio, erantsitako agiriak.

Ordainketaren ziurtagiriak.

Dirulaguntzaren xede diren ondasunen jabetza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Ordainketak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipena baldin badakar, orobat egiaztatu beharko da egindako atxikipena zerga administrazioari ordaindu izana.

Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko erakundea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (II. eranskina) ezarritako ezein egoeratan.

Fede emaile kargua betetzen duen pertsonaren ziurtagiria, administrazio batzarreko lehen-dakariaren oniritziarekin, obregatik, instalazioetan antolatutako jarduerengatik eta herriko jaietan egindako ekitaldiengatik jasotako dirulaguntzen eta bestelako diru sarreraren ziurtagiria, edo, hala badagokio, ezezkoa.

5.3.2. Aurkeztutako dirulaguntza eskaera balioesteko egokitzat jotzen dituen argibide eta dokumentu guztiak eskatu ahal izango ditu udalak.

5.3.3. Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasun edo gabeziaren bat sumatuko balitz, hamar eguneko epea emango da, deia egiten den egunetik aurrera, eskaera zuzentzeko.

6. BALIOESPEN IRIZPIDEAK.

Erriberabeitiko Udalak jarraian zehazten diren irizpideak hartuko ditu kontuan, toki erakunde eskatzaileei dirulaguntzak eman edo ukatzeko:

6.1. Diruz lagundu daitezkeen eta behar bezala frogatu diren gastuen ehuneko laurogeita hamabosteko dirulaguntza emango da, gehienez.

Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, honako hauek kenduko zaizkio diruz lagundu daitekeen kontzeptu bakoitzeko jaso daitekeen gehieneko zenbatekoari: erakundeak kontzeptu beragatik esleitutako edo jasotako diru sarrerak, hala nola zerbitzu edo obra horiek finantzatzen dituzten tasak, dirulaguntzak eta laguntzak, erakunde publikoetatik zein pribatuetatik datozenak izan.

6.2. Zehazki, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa zehazteko, aurreko apartatuaren arabera, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren (TEFFF) kontura finantzatutako kontzeptuei dagokienez, kontzeju bakoitzari funts horretan esleitutako partaidetzak deskontatuko dira, dagozkien kontzeptuengatik. TEFFFen kontzepturen batek kontzeptu bat baino gehiago biltzen baditu dirulaguntza deialdi honen arabera (egindako gastuaren obrak edo gastu arrunta), diru sarrera gastu kontzeptu bakoitzari egotziko zaio, bereizitako kontzeptu bakoitzeko administrazio batzarrak justifikatutako gastuaren proportzio berean.

Kontuan hartu beharreko TEFFFeko partaidetzak hauek dira: argiteria publikoa, hilerria, zentro soziala.

6.3 Aurreko paragrafoak aplikatzearen ondoriozko eragiketaren zenbatekoa negatiboa bada, ez da dirulaguntzarik emango, gainfinantzaketa gertatuko litzatekeelako. Emaiza positiboa bada, gainerako zenbatekoa diruz lagunduko da, justifikatutako gastu osoaren ehuneko 95eraino, edo, hala badagokio, ezarritako gehienekora arte.

6.4. Deialdi honetan jasotako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede bererako ematen dituztenekin, horiekin baturik ez badute gainditzen diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 95.

6.4. Kontzeju bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa, diruz lagundu daitekeen kontzeptu bakoitzerako, honela zehaztuko da:

a) Batu egingo dira kontzeju bakoitzak eskatu duen dirulaguntza kontzeptu bakoitzeko behar bezala frogatutako kopuru guztiak, erakunde bakoitzak batura horretan duen partaidetza ehunekoa zehazteko.

b) Horrela ateratzen den ehunekoa izango da toki erakunde bakoitzak 4. oinarrian ezarritako gehieneko dirulaguntza kredituetan izango duen partaidetza ehunekoa; horrez gainera, gastu frogatuen ehuneko 95 izango da gehieneko muga.

6.5. Obra edo zerbitzuei dagokien gastu bat diruz laguntzeko, erakunde onuradunak honako hauek ere egin beharko ditu:

Obr en kasuan, dagokion obra lizentzia eta lehen erabilerako lizentzia izatea, dagokionaren arabera. Udalak ofizioz egiaztatuko du baldintza hori betetzen dela.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren xede den higiezinaren titulartasuna agiri bidez egiaztatzea, bai obretarako, bai mantentze lanetarako.

7. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.

Laguntzak emateko prozedura norgehiagoka da, hainbanaketa sistemaren bidez, eta aurkeztutako eskabideak eta gastuen justifikazio zuzenak erkatuz egiten da, haien artean ehuneko bat ezartzeko, aurreko oinarrian adierazitako irizpideen arabera, aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa jasotako eskabide guztien artean banatuz.

8. INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA.

8.1. Instrukzio organoa udal teknikariek osatuko dute, eta ofizioz egingo dituzte datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten jarduketa guztiak. Eskaerak izapidetzeko onartu ondoren, kasu bakoitzean beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuta, zerbitzu teknikoak balioespen txostena eta ebazpen proposamena emango ditu, deialdiaren 6. oinarrian ezarritako irizpide teknikoari jarraituz. Ebazpen proposamen hori eskaera egin duten kontzejuei jakinaraziko zaie, eta hamar egun balioduneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Epe hori igarota, ebazpen proposamena behin betikoa izango da eta Alkatetzari aurkeztuko zaio, onets dezan.

8.2. Deialdia onesteko eta ebazteko organo eskuduna Alkatetza da, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

9. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.

9.1. Prozedura hiru hilabeteko epean ebatzi behar da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik eman ez bada, ezetsizat joko da dirulaguntza eskaera.

9.2. Erriberabeitiko Udalak erakunde eskatzaileei jakinaraziko die eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu dien, 10 eguneko epean, deialdiari buruzko ebazpena ematen denetik aurrera kontatuta. Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazitakoan erakunde onuradunak ez badio espresuki uko egiten 15 egun naturaleko epean, onartutzat joko da.

9.3. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko erabakiak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka, edo oinarri hauen aurka, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, hura argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; edota administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, zuzenean, administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegian, bi hilabeteko epean, hura argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

9.4. Dirulaguntza emateko erabakian hauek zehaztu behar dira:

- Dirulaguntzaren xedea eta hura eman zaion eskatzailea, edo eskatzaileen zerrenda.
- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Dirulaguntzaren izaera eta hura emateko baldintzak eta betekizunak.
- Gainerako eskaeren ezespena.

10. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.

Dirulaguntzen erakunde onuradunek frogatu beharko dute jasotzen dituzten funtsak dirulaguntzaren emakidaren oinarria izan zen helbururako erabiltzen dituztela, bat etorritz dirulaguntzen udal ordenantza orokorraren 19. artikuluan ezarritakoarekin eta oinarri hauetan ezarritakoarekin.

10.1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, gastua egin izanaren eta dagokion ordainketaren egiaztapena behar bezala bete ondoren, dirulaguntza eskaerako guztirako zenbatekoari dagokionez (ez da nahikoa emandako dirulaguntzaren zenbatekoa soilik egiaztatzea). 2024ko ekitaldian egindako gastuak izan behar dira.

10.2. Horiek frogatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Egindako gastuen zerrenda zenbakitua, hauek zehazten dituen: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkitze data eta ordainketa, deialdi honen l. eranskinaren arabera.

b) Eranskin horri egindako gastuak egiaztatzen dituzten fakturak eta ordainagiriak erantsiko zaizkio.

Gastuak ez dira ordainduko baldin eta fakturretan datu hauek ageri ez badira: fakturaren zenbakia; faktura egin zeneko data; izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa, hala faktura eman behar duenarena nola eragiketen hartzailearena; zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia; helbidea, hala faktura eman behar duenarena nola eragiketen hartzailearena; eragiketen deskripzioa, balio erantsiaren gaineko zergaren oinarria zehazteko behar diren datu guztiak adieraziz.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa edo jatorria adierazita (l. eranskina).

10.3. Dirulaguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, pertsona edo erakunde hartzaileak eskaeran horretarako adierazi duen kontu korrontean.

10.4. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko ehun justifikatu beharko du, eta ez soilik dirulaguntzaren zenbatekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta zehaztu beharko du zein gastu egozten zaion udalari.

10.5. Dirulaguntza ez da ordainduko erakunde hartzaileak frogatzeke baldin badauka udal honek emandako beste dirulaguntzaren bat, edo aurreko dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu bazaio eta ez badu hala egin. Dirulaguntza ezin izango da ordaindu erakunde onuradunak bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean, edo itzulketa bidezkotzat jotzen duen ebazpen baten ondorioz zorduna denean.

11. DIRULAGUNTZA GALTZEA ETA HURA ITZULI BEHARRA.

11.1. Ondoren adierazten diren kasuetan itzuli beharko dituzte jasotako kopuruak erakunde hartzaileek, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorraren 23. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Dirulaguntzen udal ordenantzaren ezarritakoarekin bat etorrituz:

a) Dirulaguntza ezarritako baldintzak faltsutuz eskuratu bada, edo dirulaguntza ezin ematea eragingo zuketean baldintzak ezkutatu.

b) Ez bada betetzen, osorik edo partez, dirulaguntzaren xedea, jarduera edo proiektua, edo ez bada jokatzen dirulaguntza funtsatu zuen jokabidearen arabera.

c) Ez bada betetzen justifikatzeko betebeharra, edo ez bada behar beste justifikatzen, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

d) Ez betetzea Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan 4. apartatuan jasotzen dituen zabalkunde neurriak hartzeko betebeharra.

e) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 15. artikuluetan xedatutako finantza egiaztapen eta kontroleko jardueren kontra egitea, edo jarduera horien kontra aitzakiak edo oztopoak jartzea edo haiei uko egitea, edo ez betetzea kontabilitate edo erregistro obligazioak, edo agiriak onik zaintzekoak, baldin eta horren ondorioz gertatzen bada ezin egiaztatzea jasotako funtsei emandako erabilera, ezin egiaztatzea ea bete den helburua edo ez, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta arazkotatasuna, edo izan denetz aldi berean beste

dirulaguntza, diru sarrera edo baliabiderik helburu horretarako bererako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batek emanik, diren estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoetakoak.

f) Erriberabeitiko Udalak jarritako eginbeharrak ez betetzea.

g) Oinarri hauetan, dirulaguntzen udal ordenantzan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzen duen erregelamenduan (887/2006 ED, uztailaren 21ekoa) aurreikusitako gainerako kasuak.

11.2. Erakunde onuradunak, edo, hala balegokio, erakunde laguntzaileak erabat edo ia erabat betetzen badute helburua, eta erakunde horiek egiaztatzen badute nabariki jardun direla konpromisoak betetzen, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioz determinatuko da itzuli beharreko zenbatekoa.

11.3. Halaber, dirulaguntzen udal ordenantza orokorraren 14. artikuluko l) letran jasotzen den kasuan, eta bat etorritik Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19. artikuluko 3. apartatuarekin, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik atera den soberakina itzuli beharko da, bai eta dagokion berandutze interesa ere.

11.4. Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Erriberabeitiko Udalaren dirulaguntza deialdiaren oinarrietan, dirulaguntzen udal ordenantzan, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta haren erregelamenduan araututakoari lotuko zaio.

12 ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK.

Hauek dira dirulaguntza jasotzen duten erakundeek betebeharrak:

12.1. Udalari aurkeztea diruz lagundutako kontzeptuen jarraipena egiteko eskatzen zaizkion agiriak.

12.2. Erriberabeitiko Udaleko kontuhartzaitelza orokorrak dokumentazioa egiaztatzeko eta finantzak kontrolatzeko gauzatzen dituen jarduketan mende jartzea, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo eskumen hori duten beste organo batzuen gaineko legedian jasotako mende ere.

12.3. Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatuak eta kontrolatuak izan daitezten.

12.4. Jasotako dirua itzultzea, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

12.5. Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek bere burua behartzen dute Erriberabeitiko Udalaren laguntza izan dutela argiro adieraztera erabiltzen dituzten publizitate euskarri edo plataforma guztietan.

13. INTERPRETAZIOA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA.

Oinarri hauetan jasotzen ez den guztian, aplikagarriak izango dira udalaren Dirulaguntzen Udal Ordenantza, udalbatzak 2016ko uztailaren 14an egindako bilkuran onetsia eta ALHAOn 2016ko azaroaren 7an argitaratua (124. zenbakia); Dirulaguntzen Lege Orokorra eta haren erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia; eta gainerako araudi aplikagarria.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak II. kapituluaren 8. c) artikuluan, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak II. kapituluaren 55. i) artikuluan xedatutakoaren arabera, udalak, bere webgunearen bidez (www.erriberabeitia.eus/eus/es/) eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak eta laguntza publikoak, haien zenbatekoa, xedea edo helburua eta hartzaileak adieraziz (DPBLko irizpideei jarraituz).

Ribabellosa, 2024ko abuztuaren 1a

Alkatea

AMADO MARTINEZ DE ITURRATE CUARTANGO